

Itxaropenaren pena

Euskaldunon Egunkaria, 1994-06-21: 2.

Azken hamar urte hauetan joan gara makina bat aldiz gure herriko botoen indarrak neurtzera. Ez dakit nondik irteten den hainbeste fede, baina aldi bakoitzean talde guztiak irabazian irteten dira, eta, gainera, hurrengo hauteskundeetarako oraindik hobari hobeak izango diren itxaropenarekin. Hala, irabaziz irabazi, errekor guztiak apurtuko ditugunaren ametsa izan da gure azken itxaropena. Orain astebetekoa. Politikan ari diren gizonak eta emakumeek fedea behar zuten demasa bere buruari emaitza handiagoak erregali gisa agintzeko. Eta bapatean porrotak hautsi gaitu! Ezinezkoa baitzen desioaren buruz kalkulatuakoak egia izatea. Ezin da esan, bestalde, politiko guztiak gezurretan ari direla, gezurri gehiegi izango lirateke eta. Baina batzuk bai, nonbait! Nola? Telebistako publizitatearen tranpa bertan erori ote garen etorri zait burura. Zeren eta, ikusi zazu, burua erne, magia borras hori nondik nora dabilen: hitzak eta sinetsi ezin diren gertakariak tarteko, zerorri konturatzen zara lehen baino diru gutxiagoaz zure izarak garbiagoak eta gehiago iraungo dizkizutela. Batek dio, neuk esate baterako: nola liteke gutxiagorekin gehiago emateko sistema honek hainbeste salduz fabrikatzaile horiek langabezian ez geratzea. Eta hau esaten zidan Emilio bizilagunak, langile finak, nola bizi garen telebistako programak debalde ikustez gain merkeago eta hobeto... Baina agian ez gara egiatzko Euskal Herriaz ari.